

BERRIGARA


17. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1996, irailak 20

Aitor Zabaleta



Txapeldun

OPEL



TALLERES OLA


Olabarren auzoa z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Gipuzkoa)
Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:
TAKOLO AUTOAK

GANTXEGI MERTZERIA

Telesforo Aranzadi, 3 ☎ 76 00 79



Aukera zabala
BARRUKO
ERROPETAN eta
LENTZERIAN
emakume,
gizon eta
umeentzako



ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A

Artekale, 22 ☎ 76 16 63
BERGARA

Santa Ana ☎ 74 10 11
ELGOIBAR

BERRIGARA

BERRIGARALDE JAUREGIA
 480570 Bergara
 94 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:

BERGARADUN Elkartea.

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil

Miguel Elkoroberezar

Jon Larrañaga

Maketazioa:

Eneko Azkarate

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elortza

Testuen zuzenketak:

Esteban Plazaola

Maripi Laskurain

Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza

Miguel Angel Elkoroberezar

Alex Labaien

Komikiak:

Bitor Rodriguez

Gorka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Unai Azkarate

Banaketa:

Tranxangorri taldea

Tirada:

4.000 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

JOSU LETURIA


Surra irratizaleen elkartekoa

- Bihar, larunbata, irрати-kontaktuen lehiaketa egingo duzue...

- Horrela da, bai. Urtero egiten dugu eta 24 orduz ahalik eta irрати kontaktu gehien lortzen saiatuko gara. Sei taide egingo dira eta talde bakoitzak, dagozkion lau ordutan, kontaktuak lortu beharko ditu. Zailena harreman horiek gauzez lortzea izaten da. Gutxi gorabehera 10 bat lagun arituko gara Agarreburun. Iaz 1.700 kontaktu egin genituen eta gure errekorra 2.500 kontaktuetakoa da.

- Zenbat lagun ari zarete Surra Irratizaleen elkartean?

- 55 bazkide gara baina zaletasuna jeitsi egin dela esango nuke, neuk ere piskat lagata daukat.



Hala ere, badago bizi guztian hor ari den jendea, baina askorentzat modako afizio bat izan da.

- Urtean zelako lana egiten duzue?

- Batez ere koordinazio lana egiten dugu kirol ekitaldietan eta horrelakoetan. Talde askok laguntza eskatzen digute eta gu prest gaude hone-lako ekitaldietan gure laguntza emateko.

“Zapatutik domekara, 24 orduz, ahalik eta irрати kontaktu gehien lortzen saiatuko gara”

I T U R R I O N E T I K

Lasa jatetxe zaharrea hotel-pentsioa irekitzeko asmoa

Oraindik Udaletxean proiekturik jaso ez den arren, BERRIGARAK jakin du herritar batzuk interesatuta daudela Lasa jatetxe zaharrea hotel-pentsio bat irekitzeko. Lasa jatetxeak, Bidekurutzetan zegoenean, hotel zerbitzua ere eskaintzen zuen eta orain hori martxan jartzeko kontsultaren bat egin da Udaletxean. Hotel plazaz bultzatzeko ekimenak begi onez ikusten ditu Udalak eta, beraz, datozen hilabeteetan bisitariak jasotzeko beste hotel edo pentsio bat ireki daiteke Lasa jatetxe zaharrea. Era berean, jakingo duzue, Barrenkalen dagoen Peñako etxean beste hotel txiki bat zabaltzeko etxea egokitzen dihardute.

E S A N
D U T E

“Jainkoak ez gaitu abandonatzen; gizakia da berarengandik urruntzen dena, aginduta dagoena mesprezatu edo ignoratu egiten duelako. Hain zuzen ere, txintxoagoak izan gaitezten, eta elkar errespetatu dezagun, doktrina erreparatuak edo ikasteak ez digu kalterik egingo. Hori baita, borondate oneko emakume eta gizakume asko egon arren, egiten ditugun errakuntzak saihesteko modua. Baina beti ez diogu erantzuten dagokigun bizitza kalitateari eta emaitzak horrelakoak dira”.

MARIA TERESA AMASORRAIN DE NARVAEZ

Bergararra
 EL DIARIO
 VASCO

**FARGO**

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30

(Ikuslearen eguna).

**MUERTE SUBITA**

Zapatua: 17:00, 19:30.

Zinea

▼▼ Joel eta Ethan Coen anaiek (*Sangre facil, Muerte entre las flores*) sinaturiko azken filme honek zuzendaritza onenaren saria eskuratu zuen Cannesen. Oraingoan drama poliziako bat landu du bikoteak, Minnesotan 1987an izandako gertakizunetan oinarrituz. Dirua lortzeko martxan jarritako plana erabat okertuko zaio *Lundegaard* kotxe saltzaileari...

▼▼ Pittsburgh hirian izotz hockeyko finala jokatzeko ari da eta bertako ikusleak terrorista talde baten menpe geratuko dira. Terroristek Estatu Batuetako presidente ordea bahitu eta hiltzeko mehatxua egin dute baldin eta euren baldintzak betetzen ez badira, Baina ez dute *Darren McCord (Jean Claude Van Damme)* kirol aretoko zaintzaileetako bat kontutan hartu...

▼▼ El florido pensil antzezlanak ikusi ahal izango da Antzuolako zine aretoan zapatuan gaueko 10:30etatik aurrera. Andres Sopenaren lanean oinarrituta, Tanttaka taldeak frankismo garaiko eskola baten ikuspegia azaltzen digu. Besteak beste, Mikel Garmendia eta Jose Ramon Soroiz aktoreekin. Sarrerak 1.000 pezeta balio du.

Deiak

▼ **1933an jaiotakoan** bazkaria igandean, hilak 22, Antxoni ja-tetxean. Aurretik meza izango da Santa Maritan 13:15etan. Bazkari-rako txartelak Intxorta tabernan (76 22 76 telefonoa).

▼ **Itzulpen lehiaketa.** EIZIE, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak "Literatura Unibertsala" bildumarako itzulpen-lehiaketa zabalduko du datorren irailean. Itzulgaien zerrenda eta zehetasunak irailaren 24tik aurrera emango dira elkartera deituta (27 71 11 telefono zenbakia).

▼ **Alderdi Eguna.** Irailaren 29an ospatuko den Alderdi Eguna- ra joateko autobuserako txartelak Batzokiko tabernan. Irteera, goizeko 9etan Beheko Estaziotik.

Ogia

▼ **Igandea 22:** Konde.

**FARMAZIAK**

- ▼ **Eguakitza 20:** Mozos/Azkoaga.
- ▼ **Zapatua 21:** Camacho/Español.
- ▼ **Domeka 22:** Camacho/Corcuera.
- ▼ **Astelehena 23:** Puy/Irizar.
- ▼ **Martitzena 24:** Guallar/Amezua.
- ▼ **Eguaztena 25:** Estella/Ruiz.
- ▼ **Eguena 26:** Mozos/Morales.

**ETXE BERRIA****ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

*Pepelu***Ilepaindegia**Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA

Aritzeta eta Xamatz

Abesbatzaren eta dantza taldearen ikuskizuna zapatuan

Aritzeta abesbatzak eta Xamatz dantza taldeak abuztuan Beljikan eta Holandan eskeinitako ikuskizuna izango da bihar, larunbata, gaueko 10:30etatik aurrera Udal Pilotalekuan. Europa aldean Kobok dultzaineroak ere aritu ziren beraiekin baina ezin izango dute biharko emanaldian parte hartu.

Guztira, 100 bat lagun arituko dira taula gainean. Ibon Unamuno Xamatzeko kideak azaldu digun moduan, "emanaldia Ikurin dantzarekin hasiko da eta amaiera emateko guztiak Aurrekoa dantzatuko dugu. Guztira 22 ekitaldi izango dira bihar. Horietatik lau elkarrekin egingo ditugu, dantzak eta abestiak tartekatuz. Era berean, talde bakoitzak bere lan propioak eskeiniko ditu. Ikuskizunak ordubete eta 45 minutuko iraupena izango du".

Esperientzia errepetitzeko asmoz

Xamatzek eta Aritzetak biharko ikuskizun bera eskeini zuten Bruselan eta La Hayan. Ibon Unamunoren hitzetan, "esperientzia oso polita izan zen eta Holandako jendeak



Xamatzek eta Aritzetak abuztuan Bruselan eskeinitako emanaldiko irudia. JABI VICENTE.

komentatzen zigunez gaueko 8:30etan oraindik kalean gu ikusten gertatzeko, gustatu zitzaiena seinale... Benetan oso pozik geratu gara elkarlanean egindako ikuskizun honekin eta baliteke datorren urtean ere beste bidaia bat egitea. Flandriara (Beljika) udan eta Bartzelonara Aste Santuan joateko proposamenak

ditugu eta ziurrenik bietako bat egingo dugu".

Kanpoan ikuskizun honen berri izan dezaten larunbateko emanaldia bideoan grabatu egingo da interesatuei kopia bat bidali ahal izateko. "Badirudi kanpotik jende dexente etorriko dela eta gure lana ezagutzera emateko ideia ona irudituz zaigu bideoan graba-

tzea" esan digu Ibonek.

Abuztuan hamaika egunez Britainia, Holanda, Beljika eta Parisera egindako bidaian 82 lagun izan ziren eta bidaiak 4 milioi pezetako aurrekontua izan zuen. Jasotzen den dirua gastu horiei aurre egiteko bideratuko da. Sarrerak 500 pezetan jarriko dira salgai frontoian bertan.

Aritzeta abesbatzako eta Xamatz dantza taldeko 100 lagun arituko dira taula gainean ordubete inguruko ikuskizunean zapatuan Frontoian

ONENA
TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA



Amillaga (Gasolindegi ondoan). Tfnoa: 76 57 34

ZABALETA
ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskapareak...

Diskriminaziorik ez!!

Bergaratar guztiei:

Gutun honen bidez Bergarako Udalak euskara eta AEKrekiko izan duen jo-kaera kaleratu nahi dugu.

Lehenik eta behin esan nahi dugu, Eusko Jaurlaritzak herri desberdinetara luzatutako gurasoen kanpaina berezian ezin izan dugula parte hartu. AEKK hasieratik eskeini zuen bere burua kanpaina diseinatu eta lan egiteko, baina Udalak ez gaitu aintzakotzat hartu.

Denok dakigunez, gure herrian euskararen alde lan egiten duen hainbat talde dago, bi euskaltegi daudelarik hauen artean. Baina egoera honi zukua atera beharrean, informazioa gordetzen, gezurrak esaten eta gauzak ixilean eramatean euskaldundu nahi du gure herria Udalak.

AEKren ustez, gu guztion elkarlana eta partehartzea askoz aberatsago eta eraginkorragoa izango litzateke, baina Bergarako Udalean AEKK ez du hitzik.

Bergarako AEKK bi urte daramatza San Martin eskolan guraso talde batekin lanean. Baina Udalaren burugogorkeria dela eta, talde hau kolokan dago momentu hauetan.

Herria euskaldundu eta alfabetatzea bada gu guztion helburua, zergatik ez ditugu indar guztiak biltzen eta bide hori elkarrekin jorratzen? Horrelako jokaere-

kin euskara da galtzaile bakarra.

Bide batez, euskararen alde lan egiteko prest dagoen herritar orori gure ateak zabalik daudela adierazi nahi diogu, baita Bergarako Udalari ere.

BERGARAKO AKULU-AEK EUSKALTEGIA

Berdintasunaren bidean

Joan zaigu abuztua eta, beste gauza batzuen artean, mutila izateaz gain gizakia ere banaizenez, lotsatu xamartuta utzi nau. Hondarribian eta Irunen gertatutakoek erabat gorritzen naute eta "tradizioa" hitzak, orain, ikara sortzen dit barrenean.

Orain dela ez horrenbeste urte -gurasoen etxean- kolpe zorririk ez jotea "tradizioa" bazen ere, zentzuna hartuaz batera etxeko lanak ikasten hasi eta gaur egun, zorionez, gurean lan eta bizi berdintasun orekatu baten egiten dugula esango nuke.

Tradizioak!! Gure Euskal Herri honetan aintzinatik tradizio bezala onartzen zen, eguna joan, eguna etorri gizaseme asko ardoz bete-bete eginda etxeratzeari, bizilagunendako ondorioekin. Baita gizonezkoen soziedadek ere, andrak garbiketarako egiteko ez bazen sartzeko debekuekin, baita..., baita... Baina apurka-apurka bertan behera geldi-

tzen doaz. Lehen uste nuen denon mesederako, orain, ikusitakoak ikusita (andra-gizon batzuen erreakzioak) dudan jartzen dut. Neu bederen poztzen naiz.

Eguneroko berdintasuna urratzeko era mordo bat egongo dira, baina guztietan ere, andra-gizonok elkarrekin joan beharko dugu. Horretarako Udaleko Gizarte Ongizate sailak antolatutako ikastaroen bezalako ekintzak, irekiak (sexu bereizketarik gabekoak) izan beharko lukete, ez emakumeei soilik zuzendutakoak, guk ere sukaldaritza, yoga edota brikolagearen sekretoak konpartitzeko jakin mina izan dezakegu eta.

Etorriko da eguna gure ondokoek barre egingo dutela berdintasun eza aipatuz gero, baina orain Hondarribiko eta Irungo alardeak edota Bergarako ikastaroak aipatutako bakoitzean, kopeta ilundu egiten zait.

Ea datorren urtean.

ROBERTO I.

Tiira biraka



BITTOR RODRIGUEZ

“Peito”ri ongi-etorria

Bost urte eta bederlatzi hilabete kartzelan eman ondoren, Pedro Belastegi “Peito” preso bergararra asteazkenean utzi zuten aske. Asteazkenean bertan heldu zen Cacereseko espetxetik eta Gestorek deituta, ongi-etorria egin zitzaion ostegun arratsaldean San Martin plazan. Omenaldiaren ondoren manifestazioa egin zen herriko kaleetan zehar.

Moises Aspiazu dantza taldea

Moises Aspiazu dantza taldeko 4 urtetik gorako ikasleen klaseak irailaren 30ean hasiko dira, 17:00etatik 18:00etara Aranzadi Ikastolan. Izena emateko interesa dutenek 76 15 40 telefonora deitu dezakete.



Fagorrek San Juanen dituen lursailetan gas bidezko berogailuak egiteko enpresa berri bat zabalduko da.

Fagorrek 400 lanpostu berri sortuko ditu San Juanen

Vaillant enpresa alemanak eta Fagorrek elkarrekin enpresa bat eraikiko dute Bergaran, 400 lanpostu sortuko direlarik. Fagor Elektragailuak eta Vaillant enpresek %50nako partizipazioa izango dute aipatutako enpresan eta bertan gas bidezko ur berogailuak egingo dira. Enpresa San Juan auzoan kokatuko da eta inbertsioa 3.000 milioi pezetakoa izango dela aurrakusi da. Vaillant eta Fagor azken hilabeteetan negoziazioetan ibili dira eta behin betiko akordioa datozen egunotan lortuko dutela espero da.

Proiektuaren arabera, bi enpresen arteko elkarrekin produkzioa datoren urtean hasiko litzateke, eta urtean zehar bi enpresetako produkzioek bat egingo dute. Horrekin batera, Vaillant enpresak Gelaenkirchen herrian duen lantegiko produkzioa Bergarara ekarriko da. Vaillant enpresaren egoitza, berriz, Remschold hirian dago eta Estatuko zentrala Alcobendasen dauka Vaillantek 80ko hamarkadatik.

Gas bidezko berogailu eta kalderen fabrikazioan Europako liderra da Vaillant. 1998. urterako Ber-

garako lantegian 800.000 berogailu egingo direla espero da, eta horrek Vaillant eta Fagor Elektragailuak sail horretako lidergoan jarriko ditu.

Fagor Elektragailuak, bategite honi esker, azkenaldian Mondragon Kooperatiba Taldeak egin duen zabalkunde prozesuan urrats berri bat emango du. Mondragon Kooperatiba Taldeak hazkunde nabaria ezagutu du azken urte hauetan bere esportazioetan eta, horrez gain, Maroko, Egipto eta Argentinan, esate baterako, lantegiak bultzatu ditu.

HILDAKOAK

Aste honetan ez da hildakorik egon Bergaran.

JAIOTAKOAK

- Lorea Madinabeitia Dominguez Irailak 9.
- Christian Moreno Haro Irailak 12.
- Itziar Campos Goiti Irailak 12.
- Aitor Olañeta Gallastegi Irailak 13.
- Iosu Rueda Taboada Irailak 13.

Zure konfidantzako denda



Tfnokak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Orkestaren emanaldia Soraluzeko Parrokian


Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskeiniko du Soraluzeko abesbatzarekin batera, bihar, larunbata, gaueko 10etatik aurrera, Soraluzeko Parrokian. Orkestak, besteak beste, Beethoven, Saint-Saens edo De Meijen lanak joko ditu, eta, Soraluzeko abesbatzarekin batera, Haendelen "Mesias" lanaren hainbat zati interpretatuko ditu.

Ipintza eta Miguel Altuna institutuen oharra

Ipintza Institutuan matrikulatuta dauden ikasleek aurkezpen eguna irailaren 25a izango dute, ondorengo ordutegiarekin: REMeko lehen mailakoak goizeko 9 terdian, BBBko lehen mailakoak 10:30etan, BBB 2. mailakoak 11etan, LOGSE lehen mailakoak 11:30etan eta LOGSE 2. mailakoak, berriz, 12etan. Bestalde, Miguel Altuna Institutuko REMeko 2. mailakoek irailaren 25ean goizeko 9:30etan izango dute aurkezpena eta gainontzeko kursoetakoak goizeko 11etan.

Elkarteen arteko tute eta mus txapelketa

Elkarteen arteko XXVIII. Tute eta Mus Txapelketari hasiera emango zaio datorren azaroaren 2an. Finala, berriz, azaroaren 23an jokatu da. Txapelketako zozketa urriaren 26an egingo da, arratsaldeko 8etan, Santa Ana elkartearen. Izena emateko epea urriaren 20an amaituko da. Antolatzaileek elkarte guztiei parte hartzeko deia egiten die.



Argazkian, Angiozarko pelotalekua estaltzeko proiektua azaltzen duen maketa.

Angiozarko frontoia estaltzeko lanak urtarrilean hasiko dira

Angiozarrera joateko errotonda konpontzen hasi dira

Datorren urtean hasiko dira Angiozarko pilotalekua estaltzeko lanak. Udalak deitutako lehiaketara 12 proiektu aurkeztu dira eta Ignacio Ibarretxe, Javier De la Fuente eta Pedro Azkue arkitekto donostiarrek landutakoa izan da irabazlea. Proiektuak 50 milioi pezeta inguruko aurrekontua izango du. Frontoia estaltzeaz gain, hainbat konponketa egin eta aldagelak eraikiko dira Angiozarko frontoian. Proiektua bi fasetan burutuko da: lehenbizi frontoia estaltzeko kubierta jarri eta pilotalekua margotuko da. Era berean, beste hainbat konponketa lan egin beharko dira, frontoia nahiko egoera txarrean baitago. Bigarren fasean, berriz, aldagelak eraikiko dira, eta bigarren

fase honetako gastuak datorren urteko aurrekontuetan aurrikusiko dira. Lehen faseko lanak datorren urteko udarako amaitzea espero da.

Bestalde, astelehenean hasi ziren Angiozar bideko errotonda konpontzeko lanak. Iazko martxoan Diputazioak errotonda egin zuen Ibarra, Angiozarrerako bidegurutzean, baina lanak amaitu bezain laister gidarien kexak entzun ahal izan ziren bisibilitatea eskasa zelako. Angiozartarrek protesta egin zuten firma bilketaren bidez. Orain, desazelerazio karril bat jarriko da Angiozar bideko aldapa hasi baino lehen eta errepide ondoko pareta (bidegurutzetik Belengua tabernara bitartean) ere txukundu egingo da.



KORTA-ZAR

Txokolategia

Pintxo eta ogibartekoen
espezialitatea

OSTIRALETAN GOIZEKO
9 ETATIK ZABALIK

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

HBko zinegotziek Osoko Bilkuratik alde egin zuten

HBk Plenoak lanorduetan jartzeagatik protesta egin zuen

Aurreko ostiraleko Plenoan, HBko zinegotziek alde egin zuten Udaletxeko Pleno Aretotik ez-ohiko batzarreko gai zerrendarekin hasi baino lehen. HBk Plenoa lan orduetan izateagatik protesta egin zuen. Plenoa ostiralean eguerdiko 12:30etan deituta zegoen eta bertara, HBtik, Agurne Barruso eta Jesus Mari Garitano zinegotziak bakarrik joan ziren. Euren hitzetan, *“oporretan garelako etorri ahal izan gara gaur. Ez da lehenengo aldia salatzen duguna Plenoak lan orduetan izatea. Azkenengo aldiz protestatu genuenean horrelakorik ez zela gehiago gertatuko agindu zigun alkateak, baina, hala ere, aparteko premiazotasunik gabe, berriz ere jaso dugu 12:30e-*

tarako deia. Zinegotzi talde guztia- ren izenean dei honen desegokitasuna salatu nabi dugu”.

Victoriano Gallastegi alkateak AZSE enpresak Udalaren aurka ezarritako epaiketari abokatua izendatzeko epea astelehenean, San Martin egunean, amaitzen zenez, gaia premiazkoa zela erantzun zuen. Garitanok Plenoa aurreko egunetan zergatik ez zen egin galdetu zion orduan, eta alkateak legeak agintzen dituen epe guztiak betetzeagatik ostiralean egitea erabaki zela erantzun zion. Ondoren, HBko bi zinegotziek Plenotik alde egin zuten. Plenoak aurrera egin zuen eta tramitezko gai guztiak EAJ, EA eta PSE-EEren botoekin onartu ziren. Plenoak bost minutu iraun zuen.



Sutea Movillasen

Aurreko ostiral arratsaldean sute bat izan zen Movillaseko lantegian, Urteagan. Tejabanako zati txiki batek su hartu zuen eta Zubillagako suhiltzaileak etorri behar izan ziren sua amatatzera. Movillaseko arduradunek adierazi digutenez oso kalte txikiak izan ziren, eta lantegiak lanean jarraitu du normaltasun osoz.

Bideo ikastaroa astebete atzeratu da

Kultur Etxeko Islada bideo gelak antolatutako bideo ikastaroa astebete atzeratu da. Beraz, ikastaroa irailaren 30ean hasi eta azaroaren 13an bukatuko da. Klaseak astelehen, asteazken eta ostegunetan izango dira, 6etatik 8:30ak arte. Izen-ematea (7.000 pezeta, 3.500 langabetuentzat) Kultur Etxean egin daiteke.

HHI eskola

Bergarako Helduen Heziketa Iraunkorreko Eskolan (HHI-EPA) zabalik dago aurtengo ikasturterako matrikula epea. Argibideak jaso edo izena emateko interesa dutenek HHI zentrura jo dezakete (Barrenkale 33, 2. pisua, 76 44 52 telefonoa), 9etatik ordubatera eta 4retatik 8etara.



EAJ, EA eta PSE-EEko zinegotzien botuekin Plenoko gai guztiak onartu ziren. ARTXIBOA.

KONDE



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

AZPEITXI

Aranerrika, 13 behea ☎ 76 55 00

Jatetxea

Osasuna

Analisi klinikoak

- Zeintzuk dira analisi kliniko motak?

- Analisisiek osasun egoera bat konfirmatu, prebenitu eta diagnostikatzeko balio dezaketen sustantziak determinatzen dituzte. Era berean, gaisotasun baten jarraipena egiteko baliogarriak dira. Odola, txisa, kaka eta likido biologikoen analisiak egin daitezke baina normalenak txizarenak eta odolorenak dira. Anali-siaren emaitzak jaso ondoren medikuak agindu-ko du zer egin horren aurrean.


- Nolako emaitzak jasotzen dira?

- Odolean zelulak normalak diren ala ez ikusten da, globulo zuri eta gorriak normalak diren eta kantitatea ere bai. Aldi berean odolaren abiadurak pertsona batek zerbait ote duen baieztatuko digu. Adibidez, edozein inflamaziogatik odolaren abiadurak gora egiten du baina hori ez da gaisotasun baten bereizgarri. Urak eta kratininak, ber-ritz, giltzurrunaren funtzionamenduaren berri emango digute; glukosak

azukarraren kopurua eta kolesterola bihotzeko gaisotasunak prebenitzeko indikatzailea litzateke. Bestalde, transaminasak (GGT) gibelaren egoera aztertzeko izango dira, eta analisiari esker azido urikoaren neurria ere jakin ahal izango dugu.

- Txizaren analisiak antzerako emaitzak ematen al ditu?

- Bestearen osagarria



ISABEL LABORRA
(Analista)

litzateke eta infekzioren bat dagoen esango digu. Esan behar da gaur egun aurrerakuntza haundiak izan direla analisisietan eta beraz emaitzak prezisio haundikoak direla, guztia automatizatuta baitago. Emaitzak hurrengo egunerako jasotzen dira eta

oraindik gero eta aurrerakuntza gehiago ematen dira.


- Nori gomendatuko zenioke analisiak egitea?

- Adin batetik aurrera, heltzaroan, urtero egitea komeni izaten da. Ez dira garestiak eta beraz ondo dator norberaren egoera zein den jakitea. Arriskua duen jendeari bereziki ondo datorkio analisiak egitea. Adibidez glukosak zertxobait altua dutenak analisiak egitea beharrezkoa dute tratamendua zehazteko, kolesterolarekin arazoak dituztenak... Bestalde, aurrerakuntza izugarriak gertatzen ari dira eta esate baterako PSA markadore prostatakotan prostata minbiziaren aurretiko diagnostikarako baliogarria da gaur egun.

- Jendea kolesterolak asko kezkatzen du.

- Kolesterola arterietan geratzen den grasa litzateke eta genetikoa da. Arteriak eragozteko arriskua dago eta kontuz ibili behar da kolesterol altua izanez gero (220tik gora). Estatistiken arabera gaur egungo haurrek kolesterol altua daukate beraz janari grasoak zaindu behar dira. Baina grasen artean badira grasa onak (olibioa, arrain urdina adibidez) eta grasa txarrak (animaliena). Txerria, ordea, ona izan daiteke gizen barik jatekotan.

“Kolesterola bihotzaren arterietan geratzen den grasa da, eta genetikoa da”



Adin batetik aurrera, analisiak urtero egitea komeni da.



**DEBA
GARAIA**
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

iRUDI

**Erlojudenda
Bitxitegia**

Ibargarai, 2
☎ 76 51 65

BERGARAKO

OSASUN

gida

■ ALBAITARIAK:

• ETXEBERRIA JULIO (GRANJAKO ANIMALIAK)	Mobila: 908 77 17 32	☎ 76 43 29
• ETXEBERRIA JULIO (DEBA GARAIKO ALBAITARI OFIZIALA)	Mobila: 908 77 17 32	☎ 76 43 29
• IRASTORZA BENGEO SABIN (GRANJAKO ANIMALIAK)	Iribar baserria ANTZUOLA	☎ 76 63 46
• NOGUEIRA HUMBERTO (BALDANA KLINIKA). Mobila: 908 87 68 47	Koldo Eleizalde, 28	☎ 76 27 97

■ ANALISI KLINIKOAK:

• LABORRA ISABEL	Oxirondo 4, 1. B	☎ 76 32 06
------------------	------------------	------------

■ BARNE MEDIKUNTZA:

• IRIGOYEN VICTOR	Oxirondo 4, 1. B	☎ 76 32 06
-------------------	------------------	------------

■ DENTISTAK:

• ASTIAZARAN SOLOZABAL	Iparragirre, 1 behea	☎ 76 27 95
• BERGARA HAGIN KLINIKA	Bidekurutzeta 6, 2	☎ 76 05 77
• GOROSABEL J. ALBERTO	Fraiskozuri, 5 behea	☎ 76 56 88
• IRIARTE IDOIA	Artekale 1, 1. C	☎ 76 01 65
• SUDUPE FELIPE	Matxiategi, 18 behea ezkerre	☎ 76 07 66
• GIPIZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M.	S. Arrieta 3, 2. B	☎ 76 38 54

■ FISIOTERAPEUTAK:

• ARZAK MIREN (REEDUCACION POSTURAL GLOBAL)	Masterreka, 7 4. C	☎ 76 43 71
---	--------------------	------------

■ GINEKOLOGOA:

• SERRANO DOKTOREA	Ramon María Lili, 2	☎ 76 59 39
--------------------	---------------------	------------

■ MASAILARIAK:

• AGIRREZABAL JOSE JABIER	Boni Laskurain 1, 2. A	☎ 76 15 74
• AZPEITIA IRUNE	Agorrosingo igerilekuak	☎ 76 20 51
• CASANELLAS JABIER	Boni Laskurain 5, 2. E	☎ 76 03 78
• MARTINEZ LUIS JABIER	Masterreka 7, 3. A	☎ 76 51 18

■ MEDIKUNTZA OROKORRA:

• ARCINIEGA JULIO	Boni Laskurain 3, 1. B	☎ 76 37 50
• OXIRONDO KONTSULTATEGIA	Boni Laskurain 2, behea	☎ 76 20 50

■ PEDAGOGOAK:

• IZETA MARIBI (GABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA: LOGOPEDIA, PSIKOMOTRIZITATEA)	Simon Arrieta 3, 2. E	☎ 76 26 42
--	-----------------------	------------

■ PODOLOGOAK:

• ALTUBE EDURNE	Simon Arrieta, 2	☎ 76 07 84
• AZPIAZU ARANTZAZU	Herri Lagunak, z/g.	☎ 76 41 32

■ PSIKIATRA:

• GALLASTEGI PABLO	San Martin Plaza 2, 1. ezkerre	☎ 76 26 64
--------------------	--------------------------------	------------

■ PSIKOLOGOAK:

• PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (LOGOPEDIA-FONIATRIA, PSIKOLOGIA, PSIKOMOTRIZITATEA)		☎ 76 14 80
• URKAREGI PAKITA (PSIKOLOGO KLINIKOA)		☎ 76 53 13
• ZUBILLAGA, ZABALA MARISA (PSIKOLOGO KLINIKOA)		☎ 76 30 76
• FERNANDEZ J.R.	Ramon Maria Lili, 2	☎ 76 59 39

Jesus Mari Plazaola

Domekan Oñatiko Nazioarteko artzain txakur txapelketan

Domekan Oñatin jokatu den nazioarteko artzain txakur txapelketan irabazi nahi luke Jesus Mari Plazaolak. 39 urte ditu arrasatearrak, Bergarako udaletxean egiten du lan, eta 13rekin hasi zen txapelketetan. 26 urte hauetan txapelketa ugari irabazi du, azkena 1996ko Gipuzkoako Nere txakurrari esker.

Nola hasi zinen txakur txapelketetan.

- Inaxio anaia ibiltzen zen, poztu egin nintzen, hasi eta segi egin dut.

- **Zergatik zabilta?**

- Gustatu egiten zait, denbora-pasa da. Sekula ez dut planteatu lagatzea. Gero eta jende gutxiago dabil, eta jendeak lagaz gero bukatu egingo da. Ni hasi nintzenez 36-38 bat ibiltzen ginen Gipuzkoan, orain 16 bat baino ez. Gazteenetakoa naiz.

- **Zenbat txakur dituzu?**

- Lau: Mendi (9 urte), Turko (8 urte), Nere (4 urte) eta Perla (urte eta erdi). Txapelketa bakoitzean artzain batek bi txakurrekin har dezake parte.

- **Baduzu txakurrekin ibiltzeko astirik?**

- Duela 6 urte Bergarako udaletxean sartu nintzen; ordurarte artzain ibili nintzen, orain astia dudanean ibiltzen naiz. 65 urteko lagun batek laguntzen dit, hura egunero ibiltzen da. Bat ez bada bestea egunero ibiltzen gara.

- **Txakurrak nolako ezaugarriak izan behar ditu?**

- Etxean hazitakoak izatea da garrantzitsuena. Inteligentea eta ardietarako sena izan behar ditu.

- **Zenbat denbora behar da txakurrari erakusteko?**

- Txakurrak duen erraztasunaren arabera. Urte eta erdirekin atera



"Txakurrak exhibizio eta txapelketa askotan ibiliz gero ikasi egiten du, endredatu egiten da, eta ez dio artzainari kasorik egiten".

daiteke txapelketara. Mendi eta Turko urte eta erdirekin hasi ziren txapelketetan; Nere 2 urterekin.

- **Nola erakusten da?**

- Dakien txakurra, ibilita dagoen txakurra, bi

hilabete eta erdikoarekin hartzen da; laupabost hilabete duela bakarrik hartu badaiteke, zaharra laga, eta gaztearekin jarraitzen da. Ez da hain zaila erakustea.

EGUREN

GESTORIA

Maria Pilar Eguren Díez

Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta Plaza, 3 behe

☎ 76 21 65 / 76 24 45

GURIDI

altzariak

Era guztietako altzariak

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 02

Gallastegi

Joshundegia

Mahoizko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 76 10 85

- Txapelketetarako entrenamendurik egiten duzue?

- Ez, eguneroko lana da, egunero txakurra ardiekin ibiltzea. Herri eta auzoetako jaietan exhibizio asko egiten dugu, maiztasun geroztik ez dut asteburu batean ere jai izan. Eta asko ibiltzea ez da ona, txakurrak ikasi egiten du probak egiten, ohitu egiten da, eta ohitzen denean ez die artzainaren aginduei kasorik egiten. Onena ahalik eta gutxien ibiltzea da.

- Zein txakur dabil ondoen?

- Nere. Mendik eta Turkok pare bat urte egin dute txapelketetan eta endredatu egin dira. Exhibizio askotan ibiliz gero ez dago txapelketetan ondo ibiltzeko garantiarik. Perlak sekula ez du parte hartu txapelketa batean.

- Non ibiltzen zara txapelketetan?

- Hego Euskal Herrian, iparraldean eta Katalunian. Kataluniara gonbidatuta joaten gara. Ondo etortzen da maila ikusi eta konparatzeko. Katalunian eta Euskal Herrian txapelketak berdinak izaten dira, Ameriketan beste era batekoak dira.

- Zein txakur duzu maiteen?

- Ezin dizut esan. Ondo ibili dena Mendi da. Orain Nere dabil oso ondo.

- Txakurra txapelketetan urduri jartzen da?

Lortutako txapelketak

1983: Gipuzkoako txapelketa Soli txakurrarekin.

1985: Gipuzkoako txapelketa Gure txakurrarekin.

1990: Euskal Herriko txapelketa Mendi txakurrarekin.

1992: Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelketak Mendi txakurrarekin.

1994: Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelketak Nere txakurrarekin.

1995: Gipuzkoako txapelketa Mendi txakurrarekin.

1996: Gipuzkoako txapelketa Nere txakurrarekin.

- Badaki etxean ez da goela, eta desberdin egoten da. Nik uste urduri jartzen direla, beste batzuk hazi egiten dira.

- Txapelketaren ondoren, egindako emaitzaren arabera desberdin tratatzen dituzu?

- Irabaziz gero ezin zaio mimorik egin, endredatzeko arriskua dago eta. Gaizki portatzen bada, berriz, kaskarreko bat eman edo demanda egiten diet.

- Txapelketan zein proba egin behar izaten da?

- Lehenengo proban txakurrak banderinen artean joan behar du, eta epaimahaiak esandakoan bi geldialdi egin behar ditu. Bigarren lana hesi bitartetik pasatzea izaten

da. Azkenengo proba iristen den txakurrak ardiak eskortan sartu eta handik atera egiten ditu. Puntuaziorik gehien ateratzen duenak irabazten du. Artzainak bandera batzuen bidez markatuta egoten den distantzia gorde behar du txakurra-
rekiko.

- Ardietan alde egongo da, ezta?

- Ardiak antolatzaileek jartzen dituzte, txakurrak lanean hasi arte ez ditu ezagutzen. Ardi batzuk biziagoak izaten dira, beste batzuk motelagoak. Artalde berarekin bi txakurrek egiten dute lan, eta zozketan tokatzen den txandaren arabera alde egoten da.

- Txapelketan zer da zailena?

- Gu banderinetan justu samar ibiltzen gara.

- Oñatiko nazioarteko txapelketara iristeko proba asko izaten da?

- Lehenengo Gipuzkoako preselektzioa egiten da Irunen edo Azpeitin; aurten Azpeitin izan da, eta Mendi eta Turkorekin izan naiz. Gero Gipuzkoako txapelketa jokatzen da Ezkion edo Mandubin. Hor irabazita-koak Euskadiko txapelketan hartzen du parte. Nerek Gipuzkoakoa irabazita duenez badu nazioartekoan parte hartzeko aukera.

- Domekan txapelarekin etorriko zarete Oñatitik?

- Nere ondo dabil, eta ahaleginduko gara.

“Ez dut pentsatu lagatzea. Gero eta jende gutxiago dabil, eta jendeak lagaz gero bukatu egingo da”

IZADI PILI GISASOLA

Zurradero, 2
behea.
☎ 76 58 83

Santiveri 


Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

IGARZA

**MERZERIA
LENZERIA**

Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA

ITXASMENDI



ERREKADISTA

Barrenkale, 36
BERGARA

☎ 76 50 64 / 76 13 61

EGUNERO DONOSTIA, BERGARA, ARRASATE,
ARETXABAETA, ESKORATZA eta OÑATIRA.

Parte hartze haundia San Martin ederretan

Aurtengo San Martinak azken urteotako ederrenetakoak izan dira. Ohizko ekitaldiez gain, nobedade dexente zekarren aurtengo egitarauak eta hori igarri da, jendearen parte hartzea sekula baino haundiagoa izan baita. Bedelkarreko harategiek antolatutako **txekor jana**, esate baterako, oso arrakastatsua gertatu zen eta 300 bat lagun bildu ziren zapatu gauean mahaiaren inguruan. Oso pozik geratu ez direnak, herriko jatetxeak izan dira. Konpetentzia egin omen zieten harakinek... Herriko musikariz osatutako **mexikar taldeak** ere harrera oso ona izan

zuen eta San Martin plaza jendez bete zen zapatu gauean mexikanadak abestu eta dantzatzeko. Mexikarrez jantzi zirenak asko izan ez baziren ere, giro polita sortu zen plazan. Zapatu goizeko **feriak** ere jende ugari erakarri zuen eta **Oihulari Klown** taldeak barre algarak sortarazi zituen lora, gazta, fruitu eta barazkien merkaturia **miresgarri** bihurtuz. Bedelkarreko harakinen **odolkiak**, bestalde, primerakoak!! Bagenekien hori...


Eduardo Muruamendiaraz eta **Amaia Agirre** dantzariak ondo merezitako omenaldia jaso zuten eguakitzean Udal Pilotalekura hurbildu zirenen partetik. Euskadiko dantza sueltoko txapelketa hiru bider jarraian irabazi dute Eduardo eta Amaiak. **Danborrada** eta **suzko erroberak**, San Martinetako **klasikoak**, ikusteko ere jende ugari irten zen kalera. Nagusien danborradan ez da **San Martinen gurutzatzea** egin aurren eta jendeak faltan bota du. Danborradetako nobedadea, berriz, poxpolin jantzitako neskatilak zeramatzen **karroza ikusgarria**. Herriko parte zaharreko kale estuentzat haundiegia itxuraz, arazoren bat edo beste izan baitzuen. Jai giroa nagusi izan da, beraz, aurtengo San Martinetan, baina ezbeharririk ere izan da. Domeka goizean, **istripu larria** izan zen Mekolalde inguruan. Jaietatik Soraluzera bidean zihoan kotxe batek beste batekin aurrez-aurre txoke egin zuen. Ondorioz, Iskanbila rock taldeko abeslaria, 23 urteko gazte arrasatearra, hilik gertatu zen.



Zapatu goizean jende ugari hurbildu zen plazara feria ikustera.

BEGIRALE edo ZUZENDARI i k a s t a r o a

Izen-ematea eta informazioa: Jardun Elkartea ☎ 76 08 19 - 76 36 61
Izena emateko azken eguna: Irailak 27



Barre algarak sortarazi zituen Oihulari Klaownek.



Bertsolariak fin aritu ziren zapatu gaueko emanaldian.



Jaietako sorpresa atseginetako bat, mexikar taldearen zapatu gaueko emanaldia.



Herri-kirol saio ikusgarria izan zen zapatu arratsaldekoa.

EDEL
TAPIZDENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta, 14 BERGARA

SUBIJAI

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

ileapaindegia
eder gela

disdira

Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

TABERNA ZAHARRA

Jatetxea

bazkari eta afariak

Tfnoa: 76 21 21
ANGIOZAR

Ostiralean omenduak

AMAIA AGIRRE ETA EDUARDO MURUAMENDIARAZ

Edu Muruamendiaraz eta Amaia Agirre dantzariak omenaldia egin zitzaizkien Moises Aspiazuren omenezko dantza askatuko txapelketan. Besteak beste, Euskadiko Txapelketan hiru bider nagusitu diren dantzariak hainbat operari eta frontoian bildutako jendetzaren txalo zaparrada luzea jaso zuten. Biak ere txundituta geratu ziren, "ez genuen horrelako omenaldirik espero, benetan hunkigarria izan da. Batez ere, dantzari guztien agurra gustatu zaigu". Eduk eta Amaiak txapelketatik erretiratzeko asmoa daukate, "omenaldi boney jarraitzeko indarrak ematen ditu baina ez, ez dugu txapelketa gehiagotan

parte hartuko. Erakustaldiren baten beharbada... ez dugu uste dantza erabat lagako dugunik". Edu zein Amaia Moisesekin hasi ziren dantzan eta euren esanetan, "oso maisu gogorra zen. Jatorra ere bai eta asko ikasi genuen berarekin". Eduk azpimarratzen duenez, fandango eta arin-arinean dakien guztia Moisesek erakutsi zion, eta biek ere dantza munduan sartzea eskertzen diote Aspiazuri. "Hor dago bere lana, eta zorionez, dantzan jende ugari dabil oraindik. Ea orain datozenei erakusteko aukera daukagun... Harrobiari buruz,



etorkizuna ona ikusten dute Amaiak eta Eduk. "Denbora piskat eman behar zaie orain ikasten ari direnei, baina gaurko txapelketan ere ikusi da bergararrak primeran ari direla lanean. Gure mailara iritsiko ote diren? Irtsiko dira bai. Geuk ere orain laupabost urte ez genuen espero orain lortu duguna lortzea, eta begira... Zergatik ez dute eurek ere lortuko?"

Amaiak eta Eduardok omenaldi hunkigarria jaso zuten ostiral gauean Udal Pilotalekuan. Aurretik, Moises Aspiazuren oroimenez, dantza sueltoko txapelketa jokatu zen. Kimetz eta Eneritz azkoitiarrek eraman zuten txapela. Bigarren eta hirugarren postuetan Aitzol eta Asier Ena, euren bikote hernaniarrekin, sailkatu ziren. Bikote bergarar onenaren saria, berriz, Ion Aranburu eta Maite Lazkanorentzat izan zen. Beheko argazkietan, ezkerretik hasita, Asier Ena eta Laura Carpintero, Ion Aranburu eta Maite Lazkano eta Eduardo eta Amaia.

"Ez genuen horrelakorik espero, benetan hunkigarria izan da, batez ere dantzarien agurra"



Lore lehiaketan irabazle

**MURINONDOKO ETXE ALAI
BASERRIKO FIDELA GABILONDO**

Murinondoko Etxe Alai baserriko Fidela Gabilondok aurten ere loreetan lehen saria irabazi zuen zapatuko ferian. Azken hiru urtetan bera izan da irabazlea eta berak esaten duenez, "aurretik ere zenbait urtetan irabazi nuen eta, beraz, 'beterania' naiz... Lorak izugarri gustatzen zaizkit eta feria aprobetxatzen dut neure lorak jendeari erakusteko. Oso giro polita egoten da eta lorez aparte produktu ederrak egoten dira. Nik danetik ekartzen dut: etxeko alegriak, begoniak, 'pendiente de la reina', katusak... Eta beste

askoren izenak ez dakit". Fidelak aspalditik dauka lorak zaintzeko zaletasuna eta bere kabuz ikasi zituen loren sekretuak. "Txikitatik egon naiz lora artean eta neure kontura ikasi nuen. Aitari ere asko gustatzen zitzaion eta barek ere erakutsi zidan...". Fidelari lora guztiak atsegin zaizkio eta zalantzak ditu bat aukeratzeko eskatu diogunean. "Berezirik ez daukat, denak gustatzen zaizkit. Bat aukeratzekotan begonia, altuak dira eta oso lore ederra daukatelako". Etxea ere lorez beteta dauka Fidelak eta negua

ez zaio batere gustatzen. "Orduan baserretu egiten naiz piskat, izotzagatik lorak tapatu egin behar direlako. Udaberrian, berriz, gozatu egiten dut loreekin".

Datorren urtean ere ferian parte hartzeko asmoa dauka Fidelak. "Etorriko naiz bai. Abal dudanean behintzat ferian parte hartzeko asmoa daukat".

"Txikitatik egon naiz lore artean eta nire kontura ikasi dut"



Kilometroak 96

Urriak 6 ELGOIBAR

Jakingo duzuen bezala aurtengo Kilometroak festa Elgoibarren ospatuko da urriaren 6an. Egun hori iritsi bitartean Berrigarak joku bat proposatu nahi dizuete: **Kilometroak 96ko logotipoa izkutatu dugu aldizkariaren orrialde batean.** Aurki ezazu eta behealdean daukazun txartela bete adieraziz

logotipoa non dagoen. **Asmatzaileen artean** Kilometroak 96k salmentan duen materiala erosteko **2.000 pezetako balioa duten 6 txartel zozketatuko ditugu.**

Banoa, Banixe

Euskaraz, bai horixe!

Izen-abizenak:

Telefonoa:

Zenbagarren orrialdean dago logotipoa?

Moztu txartela eta ekarri edo bidali lehen bait lehen Berrigarara. Errotalde Jauregia, Kultur Etxea, 20570 Bergara.




Herri Krossean lehenengo

AITOR ERAÑA

Aitor Eraña izan genuen lehen bergararra zapatuko krosean nagusien kategorian. Aitor Donostiako maratoirako gertatzen ari da eta pozik zegoen lortutako emaitzarekin. "Maratoia eta Behobiako proba korrituko ditut eta astero 100 kilometro egiten ditugu. Proba hau, berriz, neretako oso motza da, zirkuitua motza geratzen zait duen distantziagatik. Nolako zirkuitua den? Zirkuitoa, berez, ez da gogorra, hasieran dagoen aldapa beharbada... baina hortik aurrera ez". Hala ere, kexa bat azaldu

nahi du Aitorrek. "Datorren urterako zera gomendatuko nieke antolatzaileei: Zirkuitoak ez dauka 9 kilometro, 8 kilometro eta 400 metro dauzka, neuk neurtuta, eta hori oso inportantea da hor ibiltzen garenontzat, denborak eta gauzak hartzeko. Eta gero beste gauza bat: popularra izateko jende gutxik korritzen du eta hori indartu beharra dago. Sarien ordez, irabazleei kopa batzuk eman eta gainontzekoen artean kirol materialen zozketa egingo nuke; toki askotan egiten ari dira hori. Jende gehiagok hartu beharko luke




parte". Aitorrek urtero korritzen du krosa eta aurtengoa izan du emaitzarik onena. "39 minutu eta 21 segunduko denbora neurtu dut eta uste dut egin dudan onena dela". Beraz, urteak joan ahala,

hobeto ari da Aitor. "Gebiago entrenatzen dut eta". Formarik onena maratoirako lortzen duela esaten du. "2 ordu eta 47 minutuko marka daukat eta ea bi minututan jeistea lortzen dudan aurten...".

Zapatuko Herri Krossean parte hartze haundia izan zen eta ikusle ugari bildu zen kale hertzetan. Aitor Eraña (29' minutu eta 20 segundu) izan zen beteranoen mailako irabazlea; Fernando Zuluaga lemoarrak (27' 15''), berriz, senior mutiletan irabazi zuen; Oliver Fernandez arrasatearrak (8' 32''), kadete mutiletan; Iñaki Luka ondarroarrak (8' 08''), junior mutiletan; Mikel Gallastegi bergararrak (4' 34''),

benjamin mutiletan; Iosu Jimenez arrasatearrak (4' 25''), alebin mutiletan; eta Fernando Intxaurren arrasatearrak (4' 06''), infantil mutiletan. Emakumezkoetan, berriz, Mari Carmen Garcia arrasatearra (36' 24'') txapeldun geratu zen senior mailan eta Kristina Irigoien bergararra (10' 28'') juniorretan. Zaleak atletismo taldekoek sari ugari banatu zituzten lehen postuetan sailkatutakoaren artean.



ESKULAN

IKASTAROA

- URRITIK MAIATZERA BITARTEAN.
- ASTEAN BI EGUN.
- ARRATSALDEKO 15:30ETATIK 17:00ETARA.
- PREZIOA:

JARDUNEKO BAZKIDEAK: 6.000 PZTA.

BAZKIDE EZ DIRENAK: 7.000 PZTA.

• IZEN-EMATEA: JARDUNEN ☎ 76 08 19 - 76 36 61

• IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA: IRAILAK 27

Txekor-janeko sukaldaria

KARLOS IBARRONDO

Hamabi orduz aritu zen Karlos Ibarondo elorriotarra, beste lagun batekin batera, 222 Kg.ko txekorra prestatzen Seminarioan. Tartean, Iurretan izandako Artzai Egunean, 20 bildots erre zituen Karlosek zapatuan bertan. Bergaran goizeko 8etan ekin zioten lanari eta herritar ugari izan ziren elorriotarren lana eta txekorra ikustera hurbildu zirenak. Karlosen hitzetan, "lehenengo txekorra ondo lotu behar izaten da jausteko arriskua egoten delako. Orduerdiro buelta ematen diogu txekorrari eta azken 6 ordutan likore batzuk

bota okelak gustoa har dezan. Zailena gero dator, txekorra txikitzea ez baita batere erreza. Zatika zatika txikitu behar da eta txekorra sutan mantenduz, baragia bero beltzeko mahaletara". Karlos eta bere laguna Markinan, Gernikan, Deban, Donostian edo Salamancan izan dira antzerako hainbat txekor-jan prestatzen. "Oso ikusgarriak dira eta jende asko etortzen da ikustera. Behi eroena gertatu zenean barakinek bertako okela promozionatzeko ideiak asmatzeari ekin zioten eta azkenaldian antzerako txekor janak egin ditugu.

"Txekorra zatika txikitu behar da sutan mantenduz"



Gainera, giro oso ona egoten da honelako bazkari edo afarietan". Zapatuan, Bedelkarrek

antolatutako txekor janean, 250 bat lagun bildu ziren Seminarioko arkupeetan.



Zapatuan jo eta ke aritu ziren Bedelkarreko harakinak.

Domekan jokatu zen pintura lehiaketako lehen saria, 80.000 pezeta eta trofeoa, Ana Fernandezek irabazi zuen. Bigarren saria, 65.000 pezeta eta trofeoa, Julio Gomezek jaso zuen; Hirugarrena, 50.000 pezeta eta trofeoa, Pilar Santa Mariak eta bergarar onenari ematen zaiona, 35.000 pezeta eta trofeoa, Mari Paz Alustizak. Epai-mahaia herriko bost pintorek osatu zuten. Lehiaketara aurkeztutako koadroak, bestalde, Kultur Etxean daude ikusgai.

Zer iritzi daukazu telebistetako futbol programazioari buruz?



Fernando Rodriguez

Kinielarako adibidez oso gaizki dator astelehenetan partiduak egotea baina bestela ez zait gaizki iruditzen. Denbora baduzu guztiak ikusteko...



Eugenio Garai

Ni futbolzale amorratua naiz baina piskat nazkatuta nago hainbeste partidurekin, ia egunero. Gainera badakizu etxean zer pasatzen den telebistarekin ados jartzeko.



Pilar Biziola

Oso txarto, egunero partiduren bat dago eta. Neri ez zait batere gustatzen eta eskerrak bi telebista ditugula etxean...



Rosa Fresno

Gaizki, gizonek besterik ez dute ikusten. Telebista bat baino gehiago daukagu, bestela haserreak izango ziren. Nik oso gutxitan ikusten dut futbola.



Mari Jose Urmeneta

Ez dago gaizki baina pasada bat da. Futbol gehiegi ematen da. Nik batzutan bakarrik ikusten dut, gutxitan. Haserre batzuk egoten dira bai telebistarekin.




Imanol Fernandez

Neri berdin zait. Telesailekin gertatzen den bezala partidu asko dago baina aukera daukazu ikusteko ala ez. Nik partidu denak behintzat ez ditut ikusten.



Bizkaia Etorbidea, 1
etxabea



Tfnoa: 77 14 24

POL-POL
Taberna

☎ 76 07 78





Zaharrak eta instituzioak

Jakin berri dut jubilatut batzuk behar haundiagoa duten beste batzuei laguntzeko lanari ekingo diotena zaharren egoitzan. Berrigarako albisteari holako poza eta baikortasuna zerion. Ni, ordea, kezkatuik naiz. Uste bainuen jolasa, osteratxoak, lagun artea eta egonean egon lasaia zirela garai horretan bilatzen zirenak.

Zer erakusten du holako gauza batek? Beharren bat bete barik dagoela, hau da, zahar batzu behar dituzten zerbitzuak, laguntza edo bestelakoak, ez dituztela behar bezala jasotzen.

Zahar egoitzako gizarte laguntzaile profesionalak alde daudela esan dute ozenki. Nire ustez berak dira, hain zuzen, lan hori egin beharko luketenak eta iristen ez badira, laguntza behar badute, egoera desbideratu edo estali beharrean, zerbitzu hobekak, langile gehiago eta behar dena lortzen borrokatu beharko lirakeela uste dut.

Udalak, edo zaharrez arduratzen diren erakunde publikoek, beren egitekoa nahiko ondo betetzen ez dutela esan nahi du.


Asistentzia hori behar duten zaharrek, atendituak izateko eskubidea dute. Guk guztiok zor diegu bizitza gozua eramateko behar beste ahalegin egitea.

Eta hori gizarteak ordaindu behar duen lana da, ez borondatezkoa. Eta ordaindu behar bada langilerik egokienak behar dira, zeren, orain asistente diren profesionalak zer eskatu zaie lan hori egiteko? Ikasketak, tituluak, bi hizkuntza jakitea... Zaharrek laguntza berezitua behar dutelako.

Beraz, horretan jarduteko gertu dauden jubilatuei, ez ote zaie maila berbera eskatu behar?

Azkenik, agertu den beharrari erantzuteko erakunde publikoek egin beharrekoak egitekotan, biderik egokiena lan egiteko behar gorria dutenezako ordaindutako hainbat lanpostu sortzea da eta ez hutsunea betetzeko gertu dauden jubilatut prestuei esker xuriak eskaini.

Fermin LAZKANO



Tiran eta intxaurrak

Tiraneko arraunlari galiziarrek Kontxako bigarren eguneko oho-rezko txanda irabazi ondoren, elkarrizketa kuriosoak izan ditut. Arraunagatik interes urriek sekula erakutsi gabeko lagunak kirol honetara hurbildu ditu Tiranek. Eta hori gauza ona denez, bere probetua atera behar zaio, nahiz eta entzun ditudan hainbat esaldirekin ez egon batere ados. Galiziarrek euskaldunak baino sufrituagoak direla, lehenengo egunean Orio eta San Pedrokekin batera irten balitz Donostiako ikurriña berea izango zela, euskaldunak beti gureari begira egoten garela eta merezia geneukala honelako jipoi bat... Ez egiak eta ez gezurrak, arrazoi puntua daukaten kontuak eta itxuragabeak bihurtu daitezkeenak.


Aste honetan irakurtzen nuen nola Bernardo Atxagak emandako hizketaldi batean bi intxaur klaserekin konparaketa sakon bat egin zuen. Kaliforniatik ekarritakoa handiagoa da, itxura hobekoa kanpotik, modernoa nolabait esateko. Euskal Herrikoa, berriz, txikiagoa, satarxeagoa bere mantxa beltzekin, baina gustu berezia mantentzen duena. Eta ondoren, asteasuarrak bi intxaurren balioa azpimarratzen zuen, bien alderdi onak dastatzen jakitea eta bieiek lekua egiten jakitea komenigarria dela, intxaurrak metafora bezala erabiliz.

Beste horrenbeste gertatzen da Tiranen kontuarekin. Galiziar eta euskaldunen artean badira sufrituagoak, langileagoak, patxada gehiago edo gutxiagokoak eta alferragoak, baina ez hemen edo han jaio direlako. Orio eta San Pedrokekin batera irten balitz, denbora hobea egiteko aukera izango zuen, baina egun hartan itsaso leunaren tokian mugitua irten balitz, kalte galanta egingo zion ontzi galiziarri. Gauzak datozen bezala hartu behar dira. Eta euskaldunak ere klase askotakoak gara: gureari bakarrik begiratzen diogunak eta besteenari arreta eskaintzen diogunak.

Atxagak proposatzen duen bide horri helduko bagenio, ez genituzke gure arazo denak konponduko, ezta gutxiagorik ere, baina beste era batera bizitzeko aukera hortxe egongo litzateke, gurea inposatu gabe, baina besteenaren inposaketa jasan gabe. Kontxako ikurriña irabaztea bezain zaila.

Joseba LEZETA

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
 - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

**FRANTSES
IRAKASKUNTZA**

Mizpild 3, 1. ezkerre. BERGARA.

96-97

ikasturtea

IZEN-EMATEA:

Irailaren 30era arte.

INFORMAZIO GEHIAGO:

76 30 55 telefonoan.

ORDUTEGIA:

10:00-12:00 eta 17:00-19:00



■ Setien Gotzaia Angiozarren

Jose Maria Setien, Donostiako Gotzaia Angiozarren izan zen joan zen igande goizean, bertako Parrokiako apaiz aldaketaren testigu izateko. Angiozarren hainbat urtetan apaiz lanetan izan den **Esteban Munilla** Donostiara joango da eta bere ordeztu **Jose Luis Aperribai** bergararrak beteko ditu aurrerantzean apaiz lanak Angiozarren. Argazkian, ezkerretik hasita, Esteban Munilla, Jose Maria Setien, Jose Luis Aperribai eta **Xabier Zubizarreta**, Santa Marinako parrokoa Angiozarko **San Migel** parrokiako atarian igandeko mezaren ostean.



■ Berrigara Gida 97

Aitziber Aretxaga bergararra (ezkerrekoa) eta **Nerea Garitano** antzuolarra (eskumakoa) izango dira **Berrigara Gida 97**ko komertzialak. Gidan, denda, lantegi, profesional eta beste hainbat zerbitzuren telefonoak bilduko dira eta ahalik eta osotuena izan dadin komertzial lanetan ibiliko dira Aitziber eta Nerea. Aitziberrek Bergarako informazioa jasoko du eta Nereak, berriz, Antzuolakoa. **Berrigara Gida 97 Gabonetan kaleratuko da** eta aurreko urteetan agertu ez direnek eta aurreko ordea, agertzeko asmoa daukatenek Berrigarako telefono zenbakira (76 03 97) deitu dezakete. Adi, beraz!!

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi ☎ 76 15 09



Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE



■ Antzuola eta Aiherra bat eginik

Antzuolako 40 bat lagun Behe Nafarroako **Aiherra** herrian izan ziren joan zen igandean. Antzuola eta Aiherra (Uztaritz ondoan dagoen 800 biztanle inguruko herria) anaikidetuta daude orain dela 11 urtetik eta bi herrietako biztanleak urtero elkartzen dira, urte batean Antzuolan eta bestean Aiherran. Esan bezala, igandean Aiherran elkartu ziren eta **Otso zelai** eta **Uztaritzeko kobazuloak** bisitatu ondoren bazkaria izan zuten. Bazkalostean, berriz, trikitia, bertsoak eta berriketaldiak... Primeran pasa omen zuten. Datorren urtean Antzuolan.



Zertan dihardute ba?



Maria Jesus

Zabaleta Enpresaritza ikasketak burutu zituen 29 urteko bergarra

Cooperacion Española eta National Geographic erakundeek finantziatutako

Corredor biologico Talamanca-Caribe

proiektuan lanean ari da Costa Rican.

Talamancan Costa Ricako indijena bakarrak daude, bribri indioak hain zuzen, eta euren fruta esplotazio txikietarako planta prozesadora bat garatu nahi da. Maria Jesusek diru kontuak eta marketingaren ardura dauka eta abendura arte Costa Rican izango da lanean.

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atekak, manparak...

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

ZUBIETA
elektragintza

**MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK**

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

REMENTERIA
Altzariak

**Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan**

Arte kale, 6 Tfnoa: 76 13 29

Maite Larrañaga

24 urte ditu. Igerian bederatzi bat urtean ibili da; ez du kirolak gustokoena, igeriketa, egiteko asti gehiegirik, baina arrainez inguratuta pasatzen ditu ordurik gehienak. Orain dela 6 urtetik Lete arrandegian dihardu lanean, zazpigarren Gabonak egingo ditu.

- Arrainik itsusiena?

- Zapua, papardoa, perloia... asko daude itxuraz zatarrak.

- Goxoena?

- Antxoak, asko gustatzen zaizkit.

- Zein da gehien jaten duzuna?

- Aukera izan arren, beti berdinak jaten ditut: oilarra, antxoak, txitxarroa...

- Lanik handiena ematen duena?

- Zapu haundia garbitzeak.

- Arrain bat izatekotan?

- Mania diot, baina lubina.

- Mariskoa gustatzen?

- Bai, baina ez dut zuritzeko pazientziarik.

- Bezeroek botatzen dizute lorerik?


- Asko, eta gustora entzuten ditut.

- Herri kirolak gustatzen?

- Ez dut asko ikusten, baina bai.

- Garagardoa ala kalimotxoa?

- Kalimotxoa edaten dut.



“San Martinak Pazkuak baino gehiago gustatzen zaizkit. Askotan ibiltzen naiz partxisean. Gezurra esaten dudanean igerri egiten zait. Leyendas de pasion pelikula gomendatuko nuke”

- Odolik eman duzu sekula?

- Organu emalea naiz; behin joan nintzen odola ematera, baina botikak hartzen ari nintzelako ezin izan nuen eman.

- Zure txirrindulari faborittoa?

- Igeriketa dut gustokoago.

- Nolako gazta gustatzen zaizu?

- Gutxitan jan arren, suabea.

- Sukaldari ikastarorik egin duzu?

- Bezeroek emandako errezetek ikastaroei baino gehiago balio dute.

- Buruhaundiekin beldurtu egiten zara?

- Txikitari izugarri, orain ez.

- Zein disfraz jantziko zenuke?

- Sevillana jantzia. Oso saltseroak, biziak direlako.

- Azken parrandan zer ordutan oheratu zinen?

- San Martinetan, 4etan; oso goiz.

- San Martinak ala Pazkuak?

- San Martinak, motzagoak dira eta gogo handiagoa izaten da.

- Xakea ala partxisa?

- Partxisa, askotan ibiltzen naiz.

- Irakurri duzun libururik lodiena?

- Obabakoak, baina ez dut asko irakurtzen.

- Lagun bati gomendatuko zeniokeen pelikula?

- Leyendas de pasion, bai pelikulagatik, bai Brad Pittengatik.

- Gezur asko esan duzu?

- Bat ere ez. Gezurra esaten dudanean igerri egiten zait.

INGELES FRANTSESA ALEMANA

MATRIKULA ZABALIK!!

KURTSO HASIERA URRIAREN 1ean.

• UMEAK (6 urtetik aurrera), GAZTEAK eta HELDUAK.

• MAILA GUZTIAK.

• GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ.

• IKASTARO TRINKOAK.

• AZTERKETA OFIZIALEN
PRESTAKUNTZA.



INFORMAZIOA:

Begarako UNED. (3. pisua)

☎ 76 06 87

MATRIKULA ZABALIK!!

ETXEBIZITZA

Garaje bat salgai Burdiñaten. ☎ 76 38 06.

Donostian (Antiguon) pisua osatzeko 2 lagun behar dira. ☎ 76 25 14.

Etxea salgai Zubietan. 8 milioi. ☎ (94) 682 03 23.

Garajea salgai San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

Garajea salgai Boni Lascurainen. ☎ 76 47 67.

Garajea salgai Zurraderon. ☎ 76 02 89 (gauz).

Pisu amueblatua alokairuan S. Antonion. ☎ 76 59 71.

Baserria salgai Elgetan. ☎ 12 09 67/12 71 10.

Etxebizitza salgai Koldo Eleizalden. Garaje eta garbararekin. ☎ 76 54 66.

Bilbon pisua osatzeko 3-4 lagun behar ditugu. ☎ 76 03 58/76 57 70.

Osintxun buhardilla bat salgai. Bizitzeko egokia. Prezio oso merkea. ☎ 76 15 36.

Pisua salgai Mugertzan. Amueblatua. ☎ 76 53 79.

Pisua salgai herri erdian. ☎ 76 19 29.

Pisua salgai edo alokairuan Barrenkalean. ☎ 78 70 30.

Pisua salgai Martokuan. ☎ 7630 90.

DENETARIK

Trialsineko Monty bizikleta salgai. ☎ 76 56 13.

Seat Malaga kotxea (SS-X) salgai. ☎ 76 37 09.

Eskuz egindako umearen jertsea galdu da Bergaran. ☎ 76 62 94 (Olatz).

Urrezko pultsera galdu dut, harri urdinekin. Sarituko da. ☎ 76 55 63 (Asun).

Osintxuko kolunpioetan motxila bat ahaztu zitzaidan. ☎ 76 53 59 (Ana M.).

Mendiko bizikletako (XTR) kanbio eta frenu mantak salgai. ☎ 76 52 31.

Antzuolan umearen urrezko pultsera galdu da. ☎ 78 71 08.

Kotxe-silla bat salgai. Egoera onean. ☎ 76 13 60.

Setter txakurkumak salgai. Ehiztariak. ☎ 76 34 95.

Bikien kotxe-kapota salgai. ☎ 76 58 34 (Aitor).

Taberna-jatetxea alokairuan Olan. ☎ 76 37 80.

Seat 124 kotxea (SS-N) salgai. ☎ 76 40 94.

Etxebizitza baterako logela eta saloi bateko altzairuak saltzen ditut. Egoera onean. ☎ 76 36 82.

LANA

Ingeniaritza ikasleak klaseak ematen ditu. ☎ 76 11 11.

Mate eta fisika klaseak ematen ditut. ☎ 76 47 85.

Ingeles klaseak. ☎ 76 40 89 (Gemma).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 04 65.

OHO, aleman eta italiako klaseak ematen ditut. ☎ 76 12 38 (Irene).

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Mate eta fisika klaseak ematen dira. ☎ 76 03 72.

OHO eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

Etxeko lanak egiten ditut (orduka). ☎ 76 48 39.

OHO klaseak ematen ditut. ☎ 76 24 42 (Amaia).

Aleman diplomatuak klaseak ematen ditu. ☎ 76 12 77 (Maite).


Emakume batek etxeko lanak egingo lituzke orduka. ☎ 76 23 41.

Emakume bat eskeintzen da lan egiteko. ☎ 76 38 83 (eguerdiz eta gauz deitu).

Neska batek haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 13 46.

Neska batek haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 05 06.

Emakume euskaldun batek haurrak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 21 96.

**ARATZ****ALBAITARI KLINIKA**

Zurradero, 6 behea ☎ 76 70 67 BERGARA

Roman Lazpiur Pena
(415 kolegiatua)

BARNE MEDIKUNTZA
TXERTOAK
MICROTXIP BIDEZKO IDENTIFIKAZIOA
OSPITALIZAZIOA

KIRUKIA OROKORRA
ANALITIKA
X IZPIAK
ELEKTROKARDIOGRAMAK

OFTALMOLOGIA
TRAUMATOLOGIA
ODONTOLOGIA
ILEAPAINDEGIA

LARRIALDIAK 24 ORDUETAN • TELEFONO MOBILA: 907 48 71 19 • ETXERAKO BISITAK

BONOFOTOA



M. A. ELKOROBerezibar



Luziano Larrañaga

Luziano Larrañaga jakas du oraingo honetan BONOFOTOkos saria, aurrekoan egindako galderak asmatu dituelako eta ondorengo zozketan bere txartela irten delako. Argazkietan agertzen ziren Ama Birjinaren irudia eta San Martinena Bergarako zein tokitan aurkitu daitezkeen galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **San Pedro elizaren arkupetan eta Zurragan** zen. Zorionak **Luziano Larrañaga**ri.

Zein da Bidekurutzeta kaleko azken etxe haundi honen izena eta zein honen aurrealdean dagoen plazarena?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

T XINPARTAK

Futbol partiduak

Zapatuan gazte mailako hiru futbol partidu jokatu dira Ipintzan. 10:45etan Bergara eta Gazteak taldeen arteko 2. mailako kadeteena; 11:45etan, berriz, Bergara eta Santo Tomasen arteko ohorezko mailako kadeteena eta 17:00etan, azkenik, Bergara eta Añorgaren arteko ohorezko mailako jubenilena. Domekan, bestalde, 2. erregional mailako partidua jokatuko dute Bergarak eta Urkik 17:00etan Ipintzan.

Labegaraietako Futbito Txapelketa hilaren 28an hasiko da

Labegaraietako Futbito Txapelketan parte hartuko duten 47 taldeetako ordezkariak asteazkenean Kultur Etxean egindako bileran, txapelketa irailaren 28an hasia erabaki zuten. Bestalde, Lagunak Elkarteko zuzendaritzakoek urteko diru kontuen balantzea egin zuten. Aurtengo aurrekontua 851.840 pezetakoa da eta txapelketan parte hartuko duen talde bakoitzak 17.000 pezeta sartu beharko ditu Euskadiko Kutxako kontu korrante zenbaki honetan: 009.0.03392-2. Dirua txapelketa hasi baino lehen ordaindu beharko da.

Aitor Zabaleta

Berriz ere Espainiako onena

Aitor Zabaletak 2. urtez jarraian Espainiako Mendiko Kotxe Igoeren Txapelketa irabazi du. Orain arte jokatuak 5 lasterketak irabazi ditu gidaririk onena dela erakutsiz.

- 2. urtez jarraian txapeldun izateak zer-bait aldatu du?

- Beti lehen postuaren bila ibili gara eta 4 urtez 2. egin ondoren, irabazterakoan laguntzak errezago etorriko zirela uste genuen. Laguntasunak giratu ditugu, baina gehiago espero genuen.

- Zer falta zaizu asmo guztiak betetzeko?

- Beste guztiak daukatena: motor bat korritzeko eta beste bat ordezkoa, ordezkotxas izatea...; istripuren bat baldin badaukazu astebe-tean kotxea aldatzeko aukera izatea, baina hori guztia egiteko diru asko behar da. Kolperen bat izaten dudanean Bergara erdi eta talde osoa zoratzten dut kotxea berriz martxan jartzeko. Halere, babesleen eta zaleen partetik laguntza asko jasotzen dut eta hori eskertzekoa da. Datorren urterako beste motor bat jartzeko asmoa daukat. Orain daukadana 4 zilindrokoa da eta 6koa jarri nahi diot. Horrela kotxeari 40 kilo kenduko dizkiot, baina oraindik ez da ziurra.

- Zer moduz joan da aurtengo denboraldia?

- Oso ondo. 5 lasterketa korritu eta guztiak irabazi ditut. Datorren as-

tean Fiton (Asturias) azkenengo lasterketa izango da eta txapelketa irabazi dudan arren irabazterira irtengo naiz, Asturiaseko zaletuek asko maite naute eta. Gainera gidaririk onenak izango dira eta mailari eutsi behar diot.


- Vilariñori irabazi diozu. Zuretzat zer esan nahi du horrek?

- Bera nere maisua izan da eta asko zor diot. Ez bakarrik kotxe barruan, kotxearen kanpotik ere maisua izan da. Hari irabaztea oso zaila da eta zortea izan dut. Vilariño kotxe berriarekin ibili da eta oraindik ez dio eskua

hartu. Halere, gidari moduan hor dago Vilariñoren historia eta kotxea gidatzen ez da egun baten ahazten.

- Noizko Europako txapelketa?

- Europako txapelketa ganoraz egiteko, lehenengo urtean ezin duzu ezer egin. Europako txapelketako 4 lasterketa ezagutzen ditut bakarrik eta guztira 12 dira. Europako hainbat lekutara joan behar duzu eta bidaietan diru asko gastatu behar da. Nire ilusioa Europako txapelketan hasia da, baina ez zait ardurara Espainiakoan jarraitzea.




"Ordezko motorra falta zait asmo guztiak betetzeko"

"Vilariño maisua izan da niretzat, baita karreretatik kanpo ere"

BKEko futbol saila 96-97

BKEko futbol saila 8 taldek osatzen dute eta 8 milioiko aurrekontua izango du aurten. Talde nagusiari dagokionez, joan zen urtetik Mikel Larrañaga eta Igor Azkaratek laga dute taldea. Jokalari berriak, aldiz, jubencil mailatik datozenak izan dira. Joan zen urtean partidu batzuk jokatu arren Iban Blanco eta Iban Francok lehen taldearekin hasi dute denboraldia.

Gorka Zelaia, berriz, 2. taldetik igo da eta fitxaketa bakarra Aloña Mendi taldetik etorri den Ernesto Agirre aurrelaria izan da. Taldeko jokalaririk beterranoena Francisco Javier Rodriguez "Piti" da eta gazteena, berriz, hilabete gutxi batzuek bada ere, Iban Franco. Jabi Perezek taldea laga ondoren Goio Arrieta atxabaltarra izango da entrenatzailea.



Iñigo ZAITEGI
Presidentea
44 urte. Bergararra.



Goio ARRIETA
Entrenatzailea
34 urte. Atxabaltarra.



Luis HERZOG
Delegatua
43 urte. Bergararra.



Markel EGAÑA
Atezaina
19 urte. Bergararra.




Lauri ASKARGORTA
Atezaina
24 urte. Bergararra.



Ion Ander GALLASTEGI "Txonan"
Atzelaria
20 urte. Bergararra.




Francisco Javier RODRIGO "Piti"
Atzelaria
25 urte. Bergararra.




Luis Mari BLANCO
Atzelaria.
21 urte. Eibartarra.



Xabier LAZKANO "Xagu"
Atzelaria.
21 urte. Bergararra.



Iban BIAIN
Atzelaria.
19 urte. Bergararra.



Mikel OSORO
Presidentea
21 urte. Eibartarra.



Iñaki ARRIETA
Atzelaria
22 urte. Bergararra.




Jokin MENDIARTX
Erdilaria
19 urte. Bergararra.




Aritz IBARLUZEA
Erdilaria
22 urte. Elgoibartarra.



Jose Julian LIZARRALDE
Erdilaria
20 urte. Bergararra.




Iban FRANCO
Erdilaria
18 urte. Bergararra.



Oskar MAIZTEGI
Erdilaria
21 urte. Bergararra.



Iñigo IRIARTE
Erdilaria
21 urte. Eibartarra.



Gorka ZELAIA
Aurrelaria
26 urte. Oñatiarra.



Ion GALLASTEGI
Aurrelaria
18 urte. Bergararra.



Igor ERRASTI
Aurrelaria
21 urte. Eibartarra.



Iban BLANCO
Aurrelaria
18 urte. Bergararra.



David MAESTRE
Aurrelaria
22 urte. Bergararra.



Ernesto AGIRRE
Aurrelaria
26 urte. Oñatiarra.



PRERENTE MAILA. Goian: Markel Egaña, Oskar Maiztegi, Luis Mari Blanco, Jokin Mendiarratz, Igor Errasti, Iñaki Arieta, Gorka Zelaia, Lauri Askargorta eta Jabier Iturbe. Behean: Josetxo Lizarralde, Iban Blanco, Francisco Javier Rodrigo, Xabier Lazkano, Ion Gallastegi, Ernesto Agirre, Aritz Ibarluzea eta Goio Arrieta.



BIGARREN ERREGIONALA. Goian: Jabier Iturbe, Oier Bolibar, Joseba Duran, Gorka Davila, Eñaut Unamuno, Oskar Teheran eta Ekain Manso. Behean: Unai Apeirribai, Diego Murillo, Aitor Elkoro, Iñigo Pagaldai, Igor Larrañaga, Asier Rodriguez eta Gorka Zelaia.



HOREZKO MAILAKO JUBENILA. Goian: Aritz Igartua, Iker Arregi, Unai Uribesalgo, Iker Bolibar, Jabier Fernandez, Luis Mari Cambronero, Ekaiz Mendizabal, Aitor Moreno eta Enrique Nieto. Behean: Andoni Elkoro, Mikel Martin, Andoni Rodriguez, Garikoitz Altuna, Ander Goikoetxea, Unai Bengoa, Juanito Fernandez, Gorka San Vicente eta Gotzon Uzelai.



BIGARREN MAILAKO JUBENILA. Goian: Jokin Ramajo, Unai Azkondo, Oier Loloia, Aitor Olabarria, Pablo Gallastegi, Andres Encabo, Damaso Santos, Raul Luque, Gorka Mendoza, Jakobe Larrañaga, Unai Rollan, Alain Eloorriaga eta Jesus Gomez. Behean: Ander Elorza, Gorka Larrañaga, Manolo Sanchez, Gorka Garai, Jon Eraña, Iban Idigoras, Aniotz Birumbrales, Unai Arana eta Alvaro Tabares.



HOREZKO MAILAKO KADETEA. Goian: Joseba Rodriguez, Xabier Etxaniz, Martin Zaitegi, Andoni Rodriguez, Xabier Lete, Jose Maria Larrañaga, Jose Maria Baceredo, Mikel Lasa, Egoitz Urrutia eta Andoni Martin. Behean: Andoni Arbulu, Iker Agirre, Mikel Altuna, Ibai Moreno, Iraitz Bolinaga, Asier Pagaldai, Victor Gallastegi, Iñaki Mujika eta Josu Lete.



BIGARREN MAILAKO KADETEA. Goian: Roberto Ugarte, Andoni Rodriguez, Xabier Egidazu, Jon Sanchez, Fernando Oregi, Pedro Maria Jausoro, Arkaitz Arejolaleiba, Markel Lazpiur, Juan Carlos Garcia eta Eneko Eguren. Behean: Manolo Ortiz, Asier Bolinaga, Ignacio Dobao, Andoni Arrieta, Jon Alzola, Ibai Gaztelu, Aitor Macho, Aitor Blanco, David Ortiz eta Erik Gana.



INFANTILA. Goian: Jon Fernandez, Julen Aranburu, Mikel Elkoro, Jorge Luque, Borja Peña, Julen Berraondo, Jon Gonzalez, Joseba Orgaz, Mikel Martinez, Xoan Agustin, Eneko Juaristi, Aritz Agirre, Ander Mujika eta Jose Mari Aranburu. Behean: Unai Bilbao, Gorka Martinez, Ibai Zabaleta, Txomin Davega, Arkaitz Amenabar, Iñaki Corral, Jabi Berraondo, Ander Elkoroberriar, Alex Abajo, Zigor Aiurak, Miguel Angel Sanchez, Markel Lete eta Ander Muruamendiarratz.



ENAKUMEZKOA. Goian: Arantzazu Kortabarria, Ana Txurruka, Nerea Azkarate, Izar Mendikute, Nerea Lete, Giomar Fernandez, Maite Astaburuaga, Raquel Gonzalez, Ainara Agirre eta Bitxor Agirrebarrena. Behean: Saioa Bolibar, Naiara Beistegi, Ainhoa Larrañaga, Joana Aranburu, Ainize Oruesagasti, Uxue Lazkano, Maite Lazkano eta Olatz Bideluze.



Argazkia: Imanol Iriagarai

Institutuko futbol txapelketa

Dagoeneko futbolaz aspertuta dagoen jendearentzat, horra hor futboleko argazki bat. Ez dakigu talde honek fitxaje *millonarioak* izango zituen baina kontua da Institutuko txapelketako finalera heldu zela orain dela urte dexente. Santo Tomas egunean, urtarril amaieran, hainbat txapelketetako finalak jokatzen dira eta orduan ere futbola eta saskibaloia partiduak eta krossa jokatzen ziren.

Argazkia 1980. urtekoa da eta ezin izan dugu jakin zein talde izan zen irabazlea. Hala ere gehienak irrifartsu eta konfiantza haundiz azaltzen dira argazkian. Nolako aurpegia izango zuten partidu amaieran? Ez dakigu. Eta bazkalostean? Auskalo!!!... Kontuak kontu, horra hor argazkian agertzen direnen izen-abizenak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Imanol Garcia, Mikel Etxaniz, Agustin Larrañaga, Iñigo Urrutia, Xabier Mujika, Xabi Labaien eta Jesus Mari Kalboetxeaga.

Makurtuta: Jose Luis Dominguez, Joseba Lezeta, Jesus Garcia, Aitor Lizarralde, Juan Carlos Cusi eta Jose Angel Arriaran.

Industria
hornikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxes: 76 47 89
Santa Cruz, 25 ARETXABAETA. ☎ 77 11 75 • Faxes: 77 13 08



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

umelaga
JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!



BEDELKARREKO HARATEGIAK



- URCELAY - JOSE LUIS LETURIA -
- IGARZA - ZURUTUZA - REZOLA -
- LAZPIUR - IMAZ -
- JUAN MARI LETURIA -



BEDELKARreko HARAKINEK eskerrak eman nahi dizkie bergararrei, San Martin jaietan emandako erantzun bikainarengatik, eta aurrerantzean antolatuko dituzten ekitaldietan ere erantzun bera izan dezatela espero dute.

ESKERRIK ASKO!!

Euskaldunak
izan nahi
dugulako
EUSKAL HERRIA
EUSKALTEGI
BIHURTU DUGU!!



EUSKARA IKASTAROAK
Maila guztiak, EGA eta ALFABETATZE
Gurasoentzat klase bereziak

Matrikula epea:
IRAILAren 27ra arte

Informazioa eta matrikula:
AKULU-AEK EUSKALTEGIA
Masterreka, 13 behea
Tfnoa: 76 05 18

æk